



kristau•eskola

**AGERRALDIA
EUSKO LEGEBILTZARREAN
HEZKUNTZA BATZORDEA**

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 12a





kristau•eskola

Hezkuntza Batzordeko presidente andrea, legebiltzarkide jaun andreak,

Egun on.

Eta eskerrak Batzordeko presidente andreari, eta zuei guztioi, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzorde honen aurrean agertzeko azaroaren 21an egin genizuen eskaera onartu izanagatik.

1. AGERRALDIAREN ZIOA

1.1. Agerraldi eskaeran adierazi genuen moduan, KRISTAU ESKOLAK, Euskadiko hezkuntza-ordezkarri gisa eta Euskal Autonomi Erkidegoan elkarte moduan 141 ikastetxe biltzen dituen, Legebiltzarrean aurrean **hezkuntza itunaren beharra** azaldu nahi genizueke.

1.2. Eusko Legebiltzarrean gatz, ganbara legegile honetara, hau delako Euskadiko herritarren borondatean oinarritutako boterea daukan instituzio gorena; eta, bidenabar, Legebiltzarrean onartu eta bertatik ateratzen direlako legeak.

2. Ikaslearen garapen egokiena, aukera berdintasuna eta gizarte-kohesioa Hezkuntza Sistemaren abiapuntua, ardatza eta abiaburua.

2.1. Egungo lege-araudien baitan, hezkuntza herritar orori zor zaion eskubidea da, oinarrizko eskubidea, gizon-emakume bakoitzari eta guzietan zor zaiguna. Norbanako bakoitzak du eskubide hori, neska-mutil bakoitzak, bihar etziko gizon emakume oro da eskubide horren jabe.

2.2. Eta norbanako horietako bakoitzak ez da soilik oinarrizko eskubidearen jabea, horrekin batera -eta gainera- bera behar du izan **hezkuntza sistemaren ardatza**. Hezkuntza antolamenduaren ardatza eta muina ez da titulartasunak finkatzen dituzten ikastetxe sareek adierazita, edo Administrazioan edo sindikatuetan. Hezkuntza eragile guztiok inportanteak izanda ere, ikasleak dira hezkuntza sistemaren oinarri eta ardatz, abiapuntua eta abiaburua.

2.3. Gure legediak zehazten duenez, hezkuntza gizabanako guztietan zor zaie eta zerbitzu publiko izaera du, oinarrizko hezkuntza **nahitaezkoa** eta **doakoa** behar du, legez. Horrekin batera irakaskuntza-askatasuna eta ikastetxeak sortzeko askatasuna bermatzen dira. Botere publikoek **bermatu** behar dute gizabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorrean eta sektore interesdun **guztien parte-hartzean** oinarrituta.





kristau•eskola

- 2.4. Euskal Hezkuntza Sistema osotasunean hartu behar da; izan ere, gizartearen hezkuntza premiei erantzutera bideratzen da osorik. Horrela jasotzen du legeak, gainera. Helburua gizartearen hezkuntza beharrei erantzutea izanda, euskal hezkuntza sistema bi sareetan osatzen da: herri-ikastetxeak eta itunpeko-ikastetxeak. Bi sare horiek **osagarriak** dira eta ez menpeko.
- 2.5. Gurasoen eskubidea da hezkuntza modeloen hautua. Hezkuntza proiektuaren aukera librea bermatu behar da, proiektuen artean ikastetxea askatasunez aukeratu ahal izateko, nahiz aukera honen gauzatzea praktikan mugak izan hezkuntza planifikazioen ondorioz.
- 2.6. Gizarte honek, berak behar duen hezkuntza jarduera euskal hezkuntza sistemarekin gauzatzen du. Honen izaerari begiratzen badiogu, euskal hezkuntza sistema sareen arteko orekan ehuntzen dela konturatuko gara. Unibertsitate kanpoko hezkuntza kontuan hartuta, euskal hezkuntza sistema sare publikoak eta itunpeko sareak erdibana osatzen dute (%51a eta %49a). Oreka hori gure gizartearen hautua eta adierazgarria da eta izaera horri **justizia eta zintzotasunez** erantzun behar zaio.
- 2.7. KRISTAU ESKOLAK **bikaintasuna helburu** duen hezkuntza sistema eraiki nahi du, gure gazteei eta gizarteari zor zaion heziketa, non ezagutza zehatzen irakaspena baino gehiago, hezkuntza eta gizarte xedeak eta gaitasunen garapenak behar du izan hezkuntza sistemaren helburua. Hezkuntza jarduerak giza nortasun banakakoaren eta sozialaren erabateko garapenerantz zuzendu behar du dimentsio guztietatik.
- 2.8. Eta hezkuntza eredu zintzo eta bidezko horrek **gizarte kohesioa** eragin behar du.

Hezkuntza sistemaren baitan **berdintasuna** oinarritzkoa eta funtsezkoa da eta horren bitartez **bermatu** behar da **aukeren berdintasuna**. Hezkuntza sistemak gizarte anitza eta heterogeneo batean sortzen diren desberdintasunei aurre egin behar die, gizarte justizia eta berdintasuna helburu.

3. **ITUNAREN BEHARRA**

- 3.1. KRISTAU ESKOLAK euskal hezkuntza sistemari bideragarritasuna eta oreka emango dion hezkuntza akordioa bultzatu nahi du. Itun zabal hori adostea lehentasunezkoa jotzen dugu, horretan oinarrituta hezkuntza sistemaren hezkuntza eta giza arloetako helburuak lortzeko.
- 3.2. Hezkuntza sistemarentzat ezinbestekoa da koiuntura politikoetatik harantzago dauden helbide eta helmuga adostuak zehaztea, ez baita ona -gure aburuz- koiuntura politikoen menpe gauzatutako etengabeko araudi aldaketan baitan izatea:



3.2.1. Estatuan; LOGSE, LOCE, LOE, Errege Lege Dekretuak ...

3.2.2. Erkidegoan: hizkuntza erduetan, hezkuntza plangintzan, informazio eta komunikaziorako teknologien irakaskuntzan, bizitza bitarteko heziketan, bizikidetzan, irakasleen prestaketan, irakaskuntzaren ebaluaziorako sistemetan ...

3.3. KRISTAU ESKOLAK bikaintasuna helburu duen hezkuntza sistema eraiki nahi du, sistema osatzen dugun eragileen eta Administrazioaren arteko **elkarlanean oinarritua**. Horregatik Hezkuntza itun berriaren aldeko apustua egiten dugu, honen barruan:

3.3.1. Gizarte eta hezkuntza helburuak, beharrak eta bitartekoak zehaztu behar dira.

3.3.2. Bitartekoak helburuekin nahastu gabe, ikasleak behar du izan hezkuntza sistemaren muina eta ardatza, sareen dialektika gaingiduz, hauek helburua lortzeko bitartekoak baitira.

3.3.3. Aukera berdintasunean eta eskubide berdintasunean burutzen den pertsona bakoitzaren garapenak izan behar du xedea eta horretara zuzendu behar da, edozein dela ikasleari zerbitzu ematen dion hezkuntza sarea.

3.3.4. Euskal hezkuntza sistemari bideragarritasuna eta oreka eman behar dio, etengabeko hobekuntzari lotzeko bidean.

3.3.5. Eta honen barruan, zor dugu adostutako helburuetara lotuko diren emaitzen adierazleak izatea.

3.3.6. Halaber, hezkuntza sistemari zor zaio oinarrizko finantzaketa, helburuei eta benetako beharrei lotua. Eta ezinbestekoa da diru publiko horiek justizian, berdintasunean, eraginkortasunean eta gardentasunean oinarrituta kudeatzea.

4. **KRISIA ETA SISTEMAREN EGONKORTASUNA**

4.1. **Krisia.**

4.1.1. KRISTAU ESKOLAK argi du egiturazko krisia bizi dugula, hau ez da koiunturako krisia, egiturazkoa baizik. Horrek berak gogoeta egitera behartu beharko liguke, oraindik indarrean diren baloreei eta oinarriei buruz gure buruari galdetzeraz. Uste dugu, hausnarketa hori egin beharrean dela hezkuntza sistema bai, baina baita gizartea bera ere.



4.1.2. Mundu osoan pairatzen dugun krisi honek hezkuntza eta heziketa, pertsona orori zor zaien eskubidea izateaz gainera, **gizarte-behar** bilakatzen ditu. Hezkuntzan, heziketan eta prestaketan baitugu gure gizartearen geroa irabazteko **gakoa** eta **tresna**. Euskal hezkuntza sistemaren geroa dugu hizpide, eta beraz gure gizartearen geroa eraikitzea eta irabaztea.

4.2. Sistemaren eutsigarritasuna.

4.2.1 Hezkuntza sistemaren geroa **guztion arteko elkarlanean** eraiki nahi dugu, elkarlanean eta **sistemaren eutsigarritasuna** -bihar etziko bideragarritasuna- bermatu. Eta horrek sistema osatzen dugun eragileen eta estamentuen erantzukizuna zor du eta horrekin batera xedeak lortzeko ezinbestekoak diren baliabideak, eta hauen artean finantziario egokia izatea. Hezkuntza Sistemaren **beharrei egokitutako oinarrizko finantziario estrukturala behar du, ikasleen beharrei egokitutako eta hauen benetako beharrei berdintasunean oinarrituta erantzun egokia emango duena.**

4.2.2 KRISTAU ESKOLAK oinarrizko finantziario estrukturala du helburu. Hezkuntza xedeak lortzeko ezinbestekoa den finantzaketaz ari gara eta honen helburua gizarte beharrei erantzutea behar du izan. Kalitatezko hezkuntza xede, benetako beharrak sortzen diren tokian erantzun egokia emango duena, koste errealean oinarritua. Eta, gizarte justizia lege izanda, herritar orori zor zaion aukera berdintasuna bermatuko duena.

4.2.3 Finantzaketa publikoa gizarteak berak bere hezkuntza helburuetarako sortutako funtsak osatzen dute. Horregatik, ikastetxeek funts horiek jaso behar dituzte, bere errealitatearen premiak estali ahal izateko maila kuantitatiboan nahiz kualitatiboan. Horrek ondoren azalduko ditugun bi ondorio ditu, eta guk horiekin gure konpromisoa azpimarratu nahi dugu:

4.2.3.1. Alde batetik, funts horiek gardentasunez erabiltzeko konpromisoa, dagokion ikuskaritzarekin.

4.2.3.2. Eta bestetik, funts horiek ebaluatzeko konpromisoa, hezkuntza helburuak aintzat hartuz.

4.3. Gogoetarako eta erabakiak hartzeko zenbait datu.

4.3.1. Hezkuntza Kontzertuen Araudian (293/87 Dekretua), bosgarren artikuluan zedarritzen da Kontzertuen Araudiaren xedea dela hezkuntza kontzertuen bitartez bermatzea itunpeko ikastetxetan oinarrizko hezkuntzaren nahitaezkotasun eta doakotasun eskubidea.





4.3.2. Administrazioak eta itunduetako ikastegien jabeek izenpetzen duten hezkuntz-itunak formalizatzeko agiriak dio zehazki “Administrazioak funts publikoak izendatu behar ditu itunpeko ikastetxeari eusteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza-itunen Arautegiaren 16.tik 19.rainoko artikuluekin bat etorriaz.

4.3.3. Hezkuntza Kontzertuen Araudia onartzen duen 293/87 irailaren 8ko Dekretuak, 17. 18. eta 19. artikuluetan dio:

4.3.3.1. Irakaskuntza-maila bakoitzerako, Ituneetarako izendatzen diren herri- diruen guztirakoa, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen Guztizko Diruegitamuei buruzko Legean agertu dadina izango da.

4.3.3.2. Aipatutako modulua, **ikasgela** bakoitzaren euste diru-zenbatekoa, herri-irakaskuntzaren kosteetarako egiten den bezalaxe egingo dela zedarritzen du.

4.3.3.3. Irakasleentzako zenbateko-neurriaren zatiak bide emango du herri-irakasleekin **ezarian berdintzeko**.


4.3.4. Hezkuntzarako Lege Organikoak (2/2006 Hezkuntzarako Lege Organikoa) 117 artikuluan zera dio:

4.3.4.1. “irakasleen soldatei dagozkien kopuruek horien ordainsaria etapa bakoitzeko irakasle publikoenarekin pixkanaka parekatzea ahalbidetuko dute.”

4.3.4.2. Arestian aipatu dugun moduan, euskal hezkuntza sistema bi sareen arteko orekan oinarritzen da. Unibertsitate hezkuntza ez ezik, hezkuntza sistema erdibana eraikitzen da, erdia sare publikoak osatzen du eta beste erdia itunpeko sareak. 2006-2010 urte bitarteko batz bestea eginda ikusiko dugu ikasleen %51ak itunpeko sarean ikasi duela eta %49ak sare publikoan. Ikasgelei dagokionez, gutxi gora beherako parekotasuna gordetzen da, herri ikastetxeak ikasgelen %54a dute eta itunpeko ikastetxeek beste %46a. Ez dago beraz, desbideratze gehiegirik gizarte eta lurralde inplantazio ikuspegitik.






APROXIMACIÓN AL SISTEMA NO UNIVERSITARIO: ALUMNOS Y GRUPOS



4.3.4.3. Itunpeko sarean, publikoan baino –bataz beste- ikasgela bakoitzeko 3,44 ikasle gehiago dira. Itunpeko sareak sare publikoak baino %21a handiagoa du gelako ikasle kopurua.

APROXIMACIÓN AL SISTEMA NO UNIVERSITARIO: ALUMNOS Y GRUPOS




4.3.4.4. Behar berezietarako getetan bi sareen arteko oreka gordetzen da. Atzerriko ikasleen integrazioari dagokionez, itunpeko sarean %31ak ikasten du. KRISTAU ESKOLAK euskal hezkuntza sistema osoaren %27a izan da, sistema osoko atzerriar ikasleen %30a hartzen du bere baitan.



4.3.4.5. Hezkuntzaz kanpoko zerbitzuen erabilera, garraioari eta jangelei dagokionez, berdintsua gertatzen da bi sareetan. Sare publikoko ikasleen %55ak eta itunpeko sareko ikasleen %50ak jangeletan bazkaltzen du. Garraioen erabilerari dagokionez, itunpeko sareko ikasleen %23ak eta sare publikoko ikasleen %16ak erabiltzen du.



APROXIMACIÓN AL SISTEMA NO UNIVERSITARIO: COMEDOR Y TRANSPORTE



4.3.4.6. Beraz, egitura eta erabilera aldetik bi sareak antzekoak izan da, errekurtsio eta zerbitzu antzekoak beharko lituzkete, berdinak ez esateagatik, eta horren ondorioz finantziazioa ere **parekoa beharko luke, legeak diona betetze aldera**. Baina hori ez da horrela. Hona datu batzuk:


4.3.4.6.1. 2010eko aurrekontuen ekitaldien likidazioa kontuan hartuta, ikusiko dugu, itunpeko sareak hezkuntza sistemaren erdia izanda, aurrekontu likidatuen %31a jaso zuela (628 milioi €) sare publikoak beste %69a jaso zuen bitartean (1.396 milioi €), diferentzia 768.milioi eurokoa da. Eta 2006-2010 urte bitartekoa kontuan hartzen badugu, finantziazio diferentzi hori **3.840 milioi €koa** izan da.



4.3.4.6.2. Hezkuntza Kontzertuak ikasgela ezartzen du finantziatorako neurri moduan, eta Legeak dion moduan, finantziazioa Sare Publikoaren gastuen bezalaxe gauzatu beha da. Baina, eta 2010 datuak eskuan ikusiko dugu:



kristau•eskola




4.3.4.6.2..1. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako gelen kostua Sare Publikoan (100.232 €) Eusko Jaurlaritzak Itunpeko Sareari Haur Hezkuntzan (63.232,08 €) mugatzen diona baino %58,5 handiagoa da eta %51,2 handiagoa Lehen Hezkuntzan (66.270,97 €).

4.3.4.6.2..2. Bigarren hezkuntzan, osabidezko hezkuntzan eta Lanbide Heziketan ikasgelen kostuak Sare Publikoan (170.960 €) Eusko Jaurlaritzak maila berdinetarako itunpeko sareari ezarri dion kostu muga baino %103,4% handiagoa da Bigarren Hezkuntzari dagokionez (84.044,78 €) eta %62,2a handiagoa Batxilergoko ikasgelei dagokionez (105.409,50 €).

4.3.4.6.2..3. Eta kostu hauetan ez dira kontuan hartu **Udalen ekarpenak**: lur zoruetan, inbertsioetarako %40a jarriz edo eta funtzionamendu eta mantentze gastuetarako.




MAGNITUDES BÁSICAS: COSTE / AULA



4.3.4.6.3. Ikasleengan ikuspuntua jarrita, esan dezakegu itunpeko sareko ikasle bakoitzak zor zaion finantziarioaren erdia baino gutxiago jasotzen duela.


MAGNITUDES BÁSICAS: COSTE / ALUMNO



- Itunpeko Sarean ikasle bakoitzaren kostua 3.172 €koa da, Sare Publikoan 7.111 € ikasle bakoitzeko.
- Bigarren Hezkuntzan finantziazioa oraindik txikiagoa da, 4.717 € ikasle bakoitzeko, Sare Publikoan 10.580 € zuzentzen direnean. Beraz, ikasle bakoitzeko inbertsioa erdia da.

4.3.4.6.4. Eta gainera, egoera hau konpontze eta berdintze aldera jo ordez, kontrako norabidean doa, diferentziak gehituz doaz hezkuntza kontzertuetara zuzendutako dirua gutxiago emendatzen delako. 2006-2010 urte bitartekoa erreferentzi moduan hartuta, ikusi dezakegu herri ikasteetxetara zuzendutako finantziazioa %30,4an hazi zen bitartean, itunpeko eskolara zuzendutako gutxiago gehitu zela: %21,5a. Zenbaki osotan: 325.603.171 € sare publikora eta 214.609.948 € itunpeko sarera. Argiago ikusteko: diferentzial hori 2010an itunpeko sareak jaso duen finantziazioaren herena bezainbeste da.



PROGRAMAS FINALISTAS: INCREMENTO PERÍODO 2006-2010



4.3.4.6.5. Aztertzeko modukoa da Legebiltzarrak onartu eta benetan gauzatu diren gastuen arteko bilakaera, bestalde. 2006-2010 urte bitartekoari begiratuta, ikusiko dugu, urte tarte horretan sare publikoan desbiderapena –hazkundera- urteko %14koa izan zela (152.641.122€ urte bakoitzeko eta lau urtetan 765 milioi) bitartean, eta urte tarte berean, itunpeko sareari dagokionez desbiderapena, -hazkundera- hutsaren hurrengoa izan da , urteko %1a izan zen (4.950.305€ urte bakoitzeko eta 25 milioi euro lau urteren buruan).




EVOLUCIÓN DESVIACIÓN: PRESUPUESTO APROBADO Y EJECUTADO / LIQUIDADO



4.3.4.6.6. Pertsonal gastuen gaiak arreta berezia eskatzen du. Itunpeko sareko pertsonala Administrazioak berak erabakita eta ezarritako kopuruetan finantzatzen baita, eta datu zehatzak hauek dira:



RATIOS PROFESORADO / AULA






- Hezkuntza sailburu andreak azaldu duen moduan, Sare Publikoak, batzaz beste, 1,6 irakasle gelako ditu Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta 2,1 irakasle Bigarren Hezkuntzan.
- Ratio horiek Itunpeko Sarean aplikatuz gero, KRISTAU ESKOLAK 1.600 irakasle gehiago beharko lituzke.



4.3.4.6.7. Pertsonal gastuaren batzaz bestea **%73an txikiagoa** da sare kontzertatuan (42.312 € gela bakoitzeko, zenbaki osotan).



GASTO DE PERSONAL / AULA PERÍODO 2006-2010



4.3.4.6.8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sare publikoan **ordezkapen eta indemnizazioetara** zuzentzen duen gastua pertsonal gastu osoaren %9,3a izan zen, 2006-2010 urte bitartean; %7,5a ordezkapenetara zuzendua (73 milioi euro dirutan) eta %1,8a indemnizazioetan (17,5 milioi euro, urte tarte horretan). 2010. urteko datuak kontuan hartuta, ikusiko dugu sare publikoaren ordezkapen gastua iaz 76,77 milioi eurokoa izan zela. Urte horretan, hezkuntza sistemaren erdia osatzen dugun Itunpeko Sarera Jaurlaritzak 10 milioi bideratu zizkigun horretarako (Kontzertuaren baitan finantzatutako irakasleen %2a izan zen Jaurlaritzak ezarri zuen modulua).




SUSTITUCIONES PERSONAL

PROGRAMA	2006	2007	2008	2009	2010
42210 EDUCACIÓN PREVIA Y PRIMARIA					
122 RETRIBUCIÓN SUSTITUCIÓN FUNCIONARIOS	28.373.556,00	33.021.231,00	34.145.886,00	38.301.481,00	41.201.231,00
12 FUNCIONARIOS	268.883.713,00	520.952.042,00	349.727.314,00	377.864.753,00	379.628.149,00
RESULTACIÓN TOTAL GASTO PERSONAL FUNCIONARIO	9,8%	10,3%	9,8%	10,3%	10,3%
132 RETR. PERSONAL QUE SUSTITUYE AL LABORAL	2.778.279,00	3.272.220,00	3.364.274,00	4.857.378,00	5.165.347,00
13 PERSONAL LABORAL	28.286.650,00	27.871.946,00	29.034.838,00	28.216.459,00	31.142.383,00
RESULTACIÓN TOTAL GASTO PERSONAL LABORAL	10,3%	11,8%	11,6%	13,2%	13,2%
42220 EDUCACIÓN SECUNDARIA, COMPENSATORIA Y FORMACIÓN PROFES.					
122 SUSTITUCIÓN FUNCIONARIOS	34.133.605,00	32.807.236,00	33.835.531,00	31.123.445,00	34.000.000,00
12 FUNCIONARIOS	349.714.073,00	379.313.381,00	402.779.312,00	418.828.955,00	392.227.929,00
RESULTACIÓN TOTAL GASTO PERSONAL	9,3%	8,4%	8,6%	7,4%	9,4%
132 RETR. PERSONAL QUE SUSTITUYE AL LABORAL	1.861.153,00	1.897.412,00	2.254.183,00	2.928.833,00	3.177.178,00
13 PERSONAL LABORAL	19.293.094,00	18.832.238,00	20.714.908,00	21.488.821,00	20.128.219,00
RESULTACIÓN TOTAL GASTO PERSONAL LABORAL	9,7%	8,4%	10,6%	13,7%	13,2%



4.3.4.6.9. Funtzionamendu gastuen barruan, sare publikoari dagokionean, jangela gastuak sartzen dira, honek 314 milioi euro metatu ditu 2006-2010 urte bitartean, ikasketa bi etapak kontuan izanda. Zeharkako laguntzetan, sare publikoari garraioa subentzionatzen zaio, itunpeko eskolei ez bezala. Garraio gastua urteko 22 milioi eurokoa izan da 2006-2010 urte bitartean, beraz gastu horren metatua 110 milioi eurokoa izan zen. Hau bakarrik **itunpeko eskolei eman zaien finantziazio osoaren %19a da**. Hurrengo grafikoan ikusi dezakegu, 2010an exekutatuak gastuari dagokiona.

MAGNITUDES BÁSICAS: TRANSPORTE Y COMEDOR Ej. 2010





4.3.4.6.10. Datuak, gordinak eta argiak dira. Hauetan oinarrituta ondorioztatu dezakegu berdintasunaren printzipioaren haustura. Eta hori, hezkuntza sistemaren oinarria den eta Legeak aldarrikatzen duen aukera berdintasunaren kontra doa.

4.3.4.6.11. Datu horiek, bestalde, Legean ezarrita dagoen analogia printzipioaren aplikazio zehatzak itunpeko ikastetxeen finantziatoria 1.143 milioi € bideratzea eskatuko lukeela adierazten digute. Horrek Administrazio Publikoari 514 milioi euro gehiago bideratzea eskatuko lioke, hau %87an emendatzea egun bideratzen den finantziatoria. **KRISTAU ESKOLAK ez du analogiaren aplikazioa zehatz hori eskatzen.** Orain arte esandakoa egoera bere gordintasuna eta errekurtsoen erabilera ez zuzena azaldu nahi izan du.

5. **LABURBILDUZ**

- 5.1. **Krisi ekonomiko sakona** bizi dugu, egiturazkoa koiunturazkoa baino gehiago eta egoeraren zailtasunaz kontziente gara. Kristau Eskolak, hezkuntza sistemaren parte den neurrian, **bere analisia, gogoeta eta irtenbideak jarri nahi ditu mahai gainean eztabaidarako, gure arduetatik beste eragileekin hartu emanean eta elkarrizketan akordio hori adosteko asmoz.** Orain, inoiz baino gehiago, guztiok efizientzia eta efikazian oinarritutako funts publikoen kudeaketa zorrotza zor dugu, horretan datza hezkuntza **sistemaren eutsigarritasuna.** Berdintasuna eta kalitatea ditugu helburu, justizia oinarri eta pertsonen eta gizartearen garapen soziala, kulturala eta ekonomikoa xede.
- 5.2. Legebiltzarrari **hausnarketa eta eztabaida irekitzea** eskatu nahi diogu. Gogoeta eta eztabaida garrantzitsua izanda, helburua oraindik garrantzitsuagoa da: **ituna** lortzea, hezkuntza sistemaren geroa ziurtatuko duen hezkuntza sistema osorako oinarritzko hezkuntza eta gizarte akordioa burutzea. Itun horren barruan eta bere aplikazio aldera, malgutasunez eta indikadore objetiboetan oinarrituta jokatu beharko da. Ituna malgutasunean eta kanpoko eta barruko adierazleen laguntzarekin gauzatuko litzateke. Batzorde hau, eta edozein kasutan Legebiltzarra, da gogoeta eta eztabaida hori gauzatu eta ituna erdiesteko lekua. Ezin ukatu, KRISTAU ESKOLARENTZAT hausnarketa eta ondorengo akordioa oso garrantzitsua dela. Ezin dugu denbora pasatzen utzi, akordioa premiazkoa da eta lor daiteke eta lortu egin behar da. Hori da gure eskaera.
- 5.3. Horrekin batera, eta agerraldi honetan Itunpeko hezkuntza sareak pairatzen dituen finantziario diferentziak azaldu ondoren, **Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu 2012ko Aurrekontuen Legearen barruan itzuli ditzala kontzertuetarako 2010eko modulutan gauzatu ziren kenketak.** Eta horrekin batera, Legebiltzarrari eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzaren **2009ko otsailaren 3ko Akordioa bere osotasunean betetzea** onar dezala.





kristau•eskola

5.4. KRISTAU ESKOLA izenean eskertu nahi dizuet, berriro, gure hausnarketa eta iritzia zuen aurrean eta Legebiltzar honen aurrean aurkezteko eman dizkiguzuen erraztasunak. Ziur gara, guztion artean lortuko dugula elkarrekin dugun helburua: euskal gizartean **neska mutil guztiak** beraien ikasleen beharrei egoki erantzuteko gai den eta munduko onenen artean den hezkuntza sistema garatzea. Hezkuntza horren bitartez, gure neska mutilei, bihar etziko gizon emakumeei, etengabe eta azkar aldatzen den mundu globalizatuan bizi izateko beharko duten heziketa eta ezinbestean beharko dituzten baliabideak eskainiko dizkiena, justizia eta berdintasuna oinarri.

5.5. Eta hau guztia justizia eta berdintasuna xede izanda. Beraz, inoiz baino gehiago, **euskal hezkuntza sistemaren geroa** ziurtatzeko, **efizientzian** eta **efikazian** oinarritutako funts publikoen **kudeaketa zorrotza** zor dugu.

Eskerrik asko.

